

Jone Maioz, Gipuzkoako Baso Elkarteko zuzendari

Jone Maioz (Orexa, 1967) Gipuzkoako Baso Elkarteko (GEBE) zuzendari berria izendatu dute. Maiozek zuzendari-lanak egin ditu behin-behinean, Fernando Otazua bere aurrekoak 2020ko udan erretiroa hartu zuenetik; eta Basoa Fundazioaren patronatuko kide ere bada joan den azaroaren 9az geroztik. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Basoa Fundazioa, EAEko baso-aberastasuna sustatzeko eta mantentzeko eta zuhaiztiak babesteko sortua.

Maioz basogintzako ingeniari teknikoa da, eta ia bi hamarkadako esperientzia du GEBEko teknikari gisa. Gure elkartera 2003an iritsi zen. Bere ibilbide profesionala Gipuzkoako lurraldearen baso-kudeaketarekin oso lotuta egon da, eta jabeekiko hurbiltasunak eta harreman zuzenak markatu dute.

